

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGUA, MERKATARITZA, TURISMOA ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

4/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 7koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren bulegoak irekitzeko ordutegia eta horiek ixteko egunak 2025erako

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 28ko 66/2012 Erabakiak ezartzen du Arabako Foru Aldundiaren bulegoen eta erregistro presentzialen ordutegia –erregistro gaietako laguntza bulegoak, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoarekin–.

Erabaki horrek xedatzen du funtzio publikoaren arloan eskumena duen diputatuaren foru aginduaren bidez ezarriko direla urtero foru aldundi honetan ordutegi bereziko egun izango direnak, eta foru agindu hori ALHAOn argitaratuko dela.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onesten dituen uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuak 10. artikuluan jasotzen duenez, Arabako Foru Aldundiko langileentzat, "Urteko lanaldiaren banaketa eta, horrenbestez, kasuan kasuko egutegiak langileen ordezkariekin adostuko dira; zerbitzu bakoitzaren beharizan bereziak bermatuta geratu beharko dira. "Egutegi horietan, jaiegun gisa aurreikusiko dira Euskal Autonomia Erkidegorako egutegi ofizialean jaiegun gisa ezarritako 14 egunak, lurralde historiko eta udalerrri bakoitzerako ezarritakoak, eta, horiez gain, ekainaren 24a, abenduaren 24a eta 31"; arauz jasotako horrek ere isla izan behar du Foru Aldundiaren bulego eta erregistroen ordutegia arautzean."

Horiek horrela, kontuan harturik Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretua, bai eta Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituen diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretua (ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuak aldatu zuen) ere, eta Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 28ko 66/2012 Erabakiaren lehenbiziko apartatuak esleitzen dizkidan ahalmenak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Egun eta ordutegi hauek ezartzea Arabako Foru Aldundiaren bulegoak eta erregistro gaietako laguntza bulegoak 2025. urtean irekitzeko:

- Ordutegi orokorra, astelehenetik ostiralera (jaiegun, ordutegi bereziko eta itxitako egunetan izan ezik): 8:15 – 14:30.
- Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritzaren bulegoen ordutegia (jaiegun, ordutegi bereziko eta itxitako egunetan izan ezik): astelehenetik ostegunera, 9:30 – 13:30; eta ostiraletan, 8:15 – 14:30.
- Ordutegi berezia, bai orokorra, bai Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritzaren bulegoetarako: 9:15 - 12:30.

2025. urtean hauek izango dira ordutegi bereziko egunak: abuztuaren 4a, 6a, 7a eta 8a eta irailaren 15a. Guardiako bulegoetarako (Ogasuna eta Erregistroa), berriz, ekainaren 23a, 25a, 26a eta 27a izango dira; eta Laudioko bulegorako (Ogasuna eta Erregistroa), apirilaren 11 eta abuztuaren 26a, 27a, 28a eta 29a."

Bigarrena. Bat etorri Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onesten dituen uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuak xedatutakoarekin, bulegoak itxita egongo diren egun gisa ezartzea 2025erako, Lan eta Enplegu Sailaren Arabako ordezkariaren 2024ko uztailaren 8ko Ebazpenaren bidez jaiegun deklaraturakoez gainera, ekainaren 24a eta abenduaren 24a eta 31.

Hirugarrena. Eskaintzen duten zerbitzua berezia delako, aurreko apartatuetan ezarritako jendearentzako ordutegitik kanpo geratzen dira honako hauek: Kultura Etxea, museoak, hirugarren adinekoren elkartegiak, basozainak eta beste zerbitzu berezi batzuk; horientzat, eskaintzen dituzten zerbitzuen arabarako ordutegiak finkatuko dira.

Laugarrena. Foru agindu honetan ezarritako egunak eta ordutegiak honela kontsulta daitezke:

- Elektronikoki, Arabako Foru Aldundiaren web atariaren bidez.
- Aurrez aurre, Arabako Foru Aldundiaren edozein bulegotan.
- Telefonoz, 945 18 18 18 zenbakira deituz.

Bosgarrena. Salbuespenez, foru agindu honetan araututako bestelako ordutegiak ezarri ahal izango dira jendea atenditzeko, leihatilan tipifikatutako administrazio izapideetarako, herriarrak hobeto atenditu ahal izateko kanpaina jakin batzuetan. Kasu horietan, saileko diputatu titularraren berariazko baimena beharko da.

Seigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 8a

*Lehenengo diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Zerbitzu Orokorren zuzendaria
IKER MIRANDA SERRANO